

Eklektizismo distiratsua

IBILBIDE LUZEA du Victor Ullate dantzari zaragozarrak. Bakarlarri gisa edota koreografo moduan urte asko daramatza, arrakasta izugarriak lortuz. Beharbada, Espainiako estatuan dantzari onenaren aurrean aurkitu ginen Musika Hamabostaldiko edizio honetan. Orain dela 25 urte sortu zuen Victor Ullate Balleta, eta handik aurrera, kontuan hartuta balletaren mundua konplexua dela, bere tokia bilatu du eta munduan ospe eta prestigioa lortu ditu.

Oraingo honetan egitarau bariatua ekarri zuen, eta alor guztiak landu zituen. Batzuentzat oso gustukoa, beste batzuentzat, ordea, nahasgarri xamarra. *Jaleos* izeneko koreografiak erakusten digu, modu interesgarritz, festa flamenko bat, Ullateren estetikatik filtratua, oso estilizatua, idealizatua, eta dantza-teknika erabat klasikoa erabiliz. Dantza-talde osoak egiten du birtuosismo erakustaldia. Ez da harritzekoa lan honekin New York-en lortutako arrakasta, flamenkoaren muina eta sentsibilitatea batzen baititu, haren zakarkeria baztertuz.

Ondoren, giro erabat desberdina aurkitu genuen *Tres* izeneko dantzaldian. Marlen Fuerte, Reika Sato eta Cristian Oliveri dantzariak teknika garbia, doitasuna eta interpretatzeko sena erakutsi zituzten, Eduardo Lao konpainiaren zuzendari ondokoak Beethovenen musikaren gainean egindako koreografia honetan. Jarraian, Beethoven izan zen berriz ere inspirazioa, *Après toi* ballet obran. Josué Ullate (Victor Ullateren semea) izan zen protagonista. Dantzari fina eta dotorea aurkitu genuen, segurua. Primeran interpretatu zuen aitaren koreografia hori, non garbi-garbi aurkitzen genuen Maurice Béjart-en eragina. Béjart maisu frantziarraren XX. Mendeko Balleta taldean hamalau urtez aritu zen Ullate, eta, beraz, nabari da haren estiloa eta teknika zaragozarraren lanetan. Hori bai, bere ukitu pertsonalarekin.

Musika Hamabostaldia.

Victor Ullate Ballet.

Zuzendaria: Victor Ullate. **Zuzendariaren ondokoa:** Eduardo Lao. **Egitaraua:** Ullate eta Laoren koreografiak. **Lekua:** Kursaal Auditorioa, Donostia. **Data:** abuztuaren 29a.



Ukitu bera begi bistan zegoen Ravelen *Bolero*-ren Ullateren bertsioan. Ikuspuntu mundutar eta sofistikatu ematen du Ullatek hain ezaguna eta antzez-tua den pieza horren bidez. *Manisero* kantarekin hasita, *Bolero*-ra pasatzen da, ñabardura eta sentimendu desberdinak irudikatuz. Lehen esan bezala, oinarri tekniko klasikoa oso nabaria da, eta eskertzekoa ere bai. Batzuetan, dantza “moderno”-ren atzetik teknika eta kalitate eskasa ezkutatzen da, baina ez da Ullateren taldearen kasua. Bikain. ■

Montserrat Auzmendi



B R A N K A



Kontxako olatuen gainean, Haize Orrazarearen ondoan, bertako produktuenganako arreta bereziarekin

Urte osoan
menu berezia 36 €

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
© 943 317 096 · Faxes: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com